

BOLUNTARIOTZARI BURUZKO EUSKAL ARAUDIA

17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa

169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa



BizkaiaGara

Eginez izan · Tiempo de acción

Aurkibidea

17/1998 Legea, Ekainaren 25ekoa, Boluntarietza buruzkoa

- Boluntarietza buruzko Legearen adierazpena	10
- I. Titulua. Xarjaren arloak	12
1. artikulua.- Legearen helburua eta esparrua	12
2. artikulua.- Boluntarietza kontzeptua	12
3. artikulua.- Interes dekarretako ekimenak	12
4. artikulua.- Jarduera oinarriak	12
- II. Titulua. Boluntarietza Estatuaren	13
I. Kapitulua. Boluntarietza	13
5. artikulua.- Boluntarietza kontzeptua	13
6. artikulua.- Boluntarietza erakundeak	13
7. artikulua.- Boluntarietza berraberrak	13
II. Kapitulua. Erakundeak eta berien harrerak boluntarietza	14
8. artikulua.- Erakundeak	14
- III. Titulua. Boluntarietza dituzten erakundeak eta administrazioaren arteko harrerak	16
9. artikulua.- Enako Jantziaren erakundeak	16
10. artikulua.- Boluntarietza Erakundearen Erakunde Orotarra	16
11. artikulua.- Administrazio publikoaren eta erakundearen arteko harrerak burutzen dituzten printzipioak	16
- IV. Titulua. Boluntarietza sustatzea	17
12. artikulua.- Sustatzeko neurri dekarretak	17
13. artikulua.- Herri dekarretak jostea	17
- V. Titulua. Boluntarietza partaidetza	18
14. artikulua.- Boluntarietza Enako Kontseilua	18
15. artikulua.- Egiteak	18
16. artikulua.- Onera	18
- Xedapen gehigarriak	19
- Aklari buruzko xedapena	19
- Azken xedapenak	19

169/2000 Dekretua, irailaren 1.ekoa, Boluntaritateko Erakundeen Errolda Orokorren funtzionamendu-araudia ezartu eta boluntaritateari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena	
- 169/2000 dekretua, irailaren 1.ekoa, Boluntaritateko Erakundeen Errolda Orokorren funtzionamendu-araudia ezartu eta boluntaritateari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena	22
1. artikulua.- Xedea	22
2. artikulua.- Aplikazio eremua	22
3. artikulua.- Inskripzioaren oinarri juridikoak	23
4. artikulua.- Inskripzioaren edukia	23
5. artikulua.- Aseguru polita	23
6. artikulua.- Inskripzioak behar diren agiriak.....	23
7. artikulua.- Errendaren eta Fundazio eta Elkarteen Erregistroaren arteko lotketak.....	24
Azken xedapenak.....	24
169/2000 Dekretuaren Ezaugarriak	23
- I. Ezaugarria. Boluntaritateko Erakundeen Errolda Orokorren izena emateko kasera eragina	1
- II. Ezaugarria. Erakundearen eta pertsona boluntariaren arteko akordio edo kooperazioaren agiriaren eragin normalizatua	6

**17/1998 LEGEA,
EKAINAREN 25EKOA,
BOLUNTARIOEI BURUZKOA.**

Buletin zenbakia: 98130
1998-07-13koa, 12943 orrialdea.

Legebiltzarrak ondoko legea
onartu duela jakinaraztenzaie
Euskaldikoherritar guztiei:

BOLUNTARIOEI BURUZKOAZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoan, arazoei aurre eginahal izateko jende elkartzeko ohitura handia izan da beti, eta aspaldi hasi ziren boluntario antolatuen mu-gimenduak.

Hainbat eta hainbat erakunde aspalditik ibili izan dira herritarrek zituzten behar frankori aurre egiteko komunitatean musutruk lan egiten, era guztietako zer-bitzua emanaz, eta beharrei aurre egiteko moduren bat Administrazioak berak aurreikusi baino lehenagotikibili ere. Hain zuzen ere, borondatezko lanaren ondorioz sortu ziren mugimendu sindikala, profesionalen talde asko, herritarren erakunde ugari eta hainbat auzo nahiz erlijio erakunde.

Behin onarturik aginte publikoek badutela erantzukizunik giza duintasunarentzako oinarritzko eskubidez benetan baliatzeko bermeari dagokionez, bai eta aukera berdintasunari eta gizarte berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeari dagokionez ere, boluntarioen lanak ez du izan behar aurretik aipatutako xedeekin zerikusia duten zerbitzu publikoetan gertatzen diren hutsuneakordezteko edo betetzeko.

Boluntarioek, euskal administrazio publikoei dagokionez, lagundu egin behar dute, berrikuntzak sartuz eta beste gizarte eragileekin batera lan eginez, gizartealdatzea helburu duten politika publikoak discinatz, garatzen eta burutzen, betiere lehenetasuna emanaz pobreziaren eta desberdintasunen aurka borrokatzeari eta zuzentasun eta berdintasun handiagoko gizarte eraikitzei.

Argi urzi nahi dugu hori. Izan ere, badirudi gauegun zalantzan jartzen direla oraindik hasi berria dugungure Ongizate Estatuaren zenbait lorpen, eta arrisku bat dago: borondatezko gizarteekin ekintza profesionalaren ordezkotzat jotzeko arriskua, eta ondorioz gizartearen beharrei aurre egiteko zerbitzu publikoak sortu gabe uzteko arriskua.

Lege hau egitearen arrazoia honakoa da: alde batetik, erakundeei buruzko zenbait alderdi Elkartearen Legean araututa badaude ere, ez dagoela boluntarioen lana bera arautzeko legedi berezirik; bestetik, legearen bidez boluntarioen ekimenak babestu nahi da.

Hori dena bermatzeko eta boluntarioen eta kide direneko erakundeen arteko harremanak nahiz erakunde horien eta Administrazioaren

arteko harremanak bermatzeko lagundu egiten du boluntarioen zein erakundeenaskatasuna areagotzen eta gehiegikeriak saihesten.

Baina lege honen ekarpen nagusia hau da: Euskal Administrazioak boluntariotza sustatzeko hartzen duen konpromezua, aldi berean herritar guztiek gizarte eraikitzen jarduteko duten esku-bidea azpimarratuz.

Legeak zati hauek ditu: hiru xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen bat eta azken xedapen bi.

I. Tituluan araututako xedapen orokorretan, legearen helburua eta aplikazio eremua zein diren eta boluntariotza kontzeptua zer den zehazten da; horrela, boluntariotza pertsona fisikoek aurrera eramaten duten interes orokorreko ekimen multzoa izango litzateke, betiere zehazten diren baldintzetan egiten direnak; baldintzahoretatik kanpo dauden ekimenak eta lege honen arabera boluntariotzaren barrukoak ez liratekeenak ere zehazten dira. Horretaz gain, interes orokorrekotzat jo-kodiren ekimenak eta boluntariotzako ekimenak bideratzeko oinarriak zehazten dira.

II. Tituluan Boluntarioaren Estatutua garatzen da bikapitulutan banatzen den azalpenari: lehenengo kapituluan, boluntarioei buruzkoan, boluntario kontzeptua azaltzen da eta boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira. Bigarrenean, erakundeei eta erakunde eta boluntarioen arteko harremanei buruzkoan, erakundeek zein baldintza bete behar dituzten zehazten da, eta, lehenengo kapituluarekin bat etorritik, erakunde hauen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira.

Boluntariotzako erakundeak deiturikoak sortzea ere aurreikusten da, eta, aurrekoak ez bezala, horiek izangoduten espezifikitatea dela eta, agian herri onurakotzat joak izango dira.

III. Tituluak, boluntarioak dituzten erakundeen eta Administrazioaren arteko harremanak arautzen dituenak, Eusko Jaurlaritzak bete beharreko funtzioak ezartzen ditu, gizarte ongizate gaietarako eskumena duen sailaren bidez beteko dituenak. Sail horren menpe egongo da, era berean, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra, eta bertan izena eman ahal izango dute boluntarioak dituzten erakundeek, programak edo egitasmoak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egitendituztenean. Bestalde, III. Tituluan administrazio EHAA - 1998ko uztailak 13, astelehena N.º 130 publikoen eta erakundeen arteko harremanen oinarriak ezartzen dira, hala nola elkarlaguntza, osagarritasuna eta partehartzea.

IV. Tituluan, euskal administrazio publikoek boluntarioen lana sustatzeko eta errazteko bultzatuko dituzten ekintzak ezartzen dira, betiere euren eskumenek eta aurrekontu ahalmenek horretarako aukera ematen duten neurrian.

Azkenik, V. Tituluan, boluntariotzaren partaidetzari buruzkoan, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua sortu eta horren kideak eta eginkizunak zein izango direnarautzen da.

Boluntariotza gaiaren inguruan biltzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko organoa izango da kontseilua, eta gizarte ongizate arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da.

Xedapen gehigarrietan, berriz, honakoa ezartzen da: alde batetik, erakundeek eskatzen badute, boluntarioak erakundeetan sartzea Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ezarritako hitzarmen edo konpromezu eredu normalizatu baten bidez formalizatu ahal izango dela.

Bestalde, epe bat ezarriko da Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak beren funtzionamendu araudiak egin ditzaten aski izango litzatekeena.

Azkenik, aldi baterako xedapenean urtebeteko epea ezartzen da, lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, legea indarrean jartzen denean boluntarioak dituzten erakundeak legean ezarritakora egokidatezen.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Legearen helburua eta esparrua.

1.- Lege honen helburua hau da: irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek egiten dituzten boluntariotzako ekimenetan herritarren parte-hartzea arautzea eta sustatzea; ekimen horietan ez dira sartzen gizartean berekasa sortzen diren elkartasunerak.

2.- Erakunde publikoek boluntarioen esku hartzeabeharrezkoa edo komenigarria dela sumatzean, irabazi asmorik ez duten erakunde pribatuen bidez bideratuko dute eskuhartze hori; horrek, ordea, ez du inondik ere euskal administrazio publikoen eginkizunen utzikeriarik ekarri behar euskal herritarrei zerbitzu publikoak emateari dagokionez.

3.- Urtarrilaren 15eko 6/1996 Legearen 2. artikuluan (boluntariotzari buruzkoan) ezarritakoa aldarazigabe, lege honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira batik bat Euskal Herrian jardungo duten erakundeak edota egoitza edo ordezkaritza Euskal Herrian duten erakundeak. Horretarako, erakundeak osatzeko ezartzen denari jarraituko zaio.

2. artikulua.- Boluntariotza kontzeptua.

1.- Lege honen ondorioetarako, pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.

b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan, funtzionariotza edo merkataritza harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebe-har juridikoa ere.

c) Irabazi asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.

d) Ordainsaririk gabeak izatea.

e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko.

2.- Legearen ondorioetarako ez dira boluntariotza izango erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin famili kontuengatik, adiskidetasunagatik, on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egindako borondatezko ekintzak.

3.- Ordezko zerbitzu sozial gisa egindakoa ere ez da borondatezko ekintzatzat joko.

3. artikulua.- Interes orokorreko ekimenak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa argitzeko, interes orokorrekotzat jotzen diren ekimenak honakoak dira: gizartearen edo pertsonaren onerako lan egiteko konprometzua dutenak, esparrua edozein dela ere: gizartea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurugiroaren babesa edo antzekoa.

4. artikulua.- Jarduteko oinarriak.

Esparru ezberdinetako boluntariotzako ekimenek balore hauek izango dituzte oinarriak: elkartasuna, partaidetza, doakotasuna, autonomia aginte publikoen aurrean, bereizkeriarik eza, aniztasuna, integrazioa, pre-bentzioa, gizartearen sentsibilizazioa eta, oro har, gizarte demokratiko, moderno eta partehartzaile, zuzen eta berdintasuneko batean elkarbizitza errazten duten baloreak.

II. TITULUA BOLUNTARIOAREN ESTATUTUA

I. KAPITULUA BOLUNTARIOAK

5. artikulua. – Boluntario kontzeptua.

1.– Boluntarioa lege honetan aipatutako ekintzak egiteko konpromezua askatasun osoz hartzen duen pertsona fisikoa da; boluntariotzat jotzeko, ekintzek 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– Boluntariotzak boluntarioaren eta erakundearen artean harremanak izatea eskatzen du. Harreman horiek hainbat eskubide eta obligazio sortzen dituzte elkarrekiko, eta horiek, edo horien alderdirik nagusienak, Legehonetako 8.4a) artikuluan aipatutako barne estatuak arautuko ditu.

3.– Boluntario izatea eta erakundeko bazkide izatea bateragarria izango da. Erakunde batean profesional modura jarduten dutenek edo erakunde horrekin laneko, merkataritzako edo beste edonolako harreman ordainsaridunak dituztenek ezin izango dituzte, inolaz ere, lan horiek berberak boluntario gisa egin.

6. artikulua. – Boluntarioaren eskubideak.

Boluntarioaren eskubideak dira:

a) Sartzen den erakundean aktiboki parte hartzea, erakundeari buruz jaso beharreko informazioa jasoz (batez ere haren xedei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa), erakundean parte-hartze organoak sortzea eta organo horietako kide izatea.

b) Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoak diseinatu, egin, burutu eta ebaluatzen laguntza ematea; horretaz gain, erakundeko boluntario den aldetik, berari ere badagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea izango du boluntarioak.

c) Boluntario lanak eskatzen duen laguntza teknikoa nahiz heziketa eta giza laguntza jasotzea eta bere izaera eta ahalmenetara hobekien egokitzten den lanetara bideratzea.

d) Aseguratuta egotea, boluntario gisa lan egitean bitartekoren bati kalterik egin baliezaioke ere; aseguruara araudian ezarritako baldintzetan eta araudiak ezarritako kapitalaren bidez egingo da.

e) Boluntarioak bere lana betetzeko xahututako dirua berreskuratzea, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.

f) Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta hurbilen egitea, programek eta egitasmoek horretarako aukera ematen duten neurrian.

g) Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea, boluntarioaren askatasuna, intimitatea eta sinismenak errespetatuz.

h) Lana segurtasun eta higiegi baldintza egokietan egitea, lanaren ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.

i) Gizarteari emandako laguntzak merezi duen errespetua eta errekonozimendua lortzea.

j) Aurrez jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.

k) Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

7. artikulua. – Boluntarioaren betebeharrak.

Hauk dira boluntarioaren betebeharrak:

a) Sartuta dauden erakundeari laguntza ematea, bere ahalmen eta borondatearen heinean, parte hartuz eta erakundearekin batera lan eginez.

b) Erakundearekiko hartutako konpromezuak betetzea, erakundearen araubidea eta helburuak errespetatuz.

c) Berari egokitutako lanak arduraz egitea eta erakundeko arduradunek ezarritako jarraibideei segitzea.

d) Erakundeak aurreikusitako heziketa ekintzetan eta lana behar bezala egiteko beharrezko ekimenetan parte hartzea.

e) Boluntario gisa lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.

f) Lagundu nahi dituzten pertsonen eta pertsonataldeen eskubideak errespetatzea.

g) Boluntario agiria eta erakundearen bereizgarria egoki erabiltzea.

h) Boluntarioaren esku uzten diren baliabide materialak zaintzea.

i) Oro har, boluntario lana lege honetako 4. artikuluan ezarritako oinarriak betez egitea.

j) Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

k) Onartzen diren segurtasun eta higieneko neurriak betetzea.

II. KAPITULUA

ERAKUNDEAK ETA HORIEN HARREMANAK BOLUNTARIOEKIN

8. artikulua. – Erakundeak.

1.– Boluntarioak dituzten erakundeak, edozein lege eredurik dagozkion ere, baldintza hauek bete beharko dituzte: legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi asmorik ez izatea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan fundazio eta elkarteak dagokien erregistroan behar bezala erregistratuta egotea eta interes orokorreko ekintzen barruan programak edo egitasmoak garatzea (lege honetako 3. artikuluan zehaztuak).

2.– Boluntariotzako erakunde izendapena erakunde hauek hartuko dute: aurreko baldintzak betetzeaz gain kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egiten dituzten erakundeak.

3.– Boluntarioak erakundeetan sartzeko bidea idatziz jasoko den hitzarmen edo konpromezua izango da. Bertan erakundearen eta boluntarioaren arteko harremana altruista izango dela eta batak bestearekiko dituen eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren zehaztuko da; horretaz gain, eginkizunak, ekintzak, harremanaren iraupena, harreman hori desegiteko arrazoiak eta erakundeak eta boluntarioek finkatu nahi dituzten beste hainbat puntu zehaztuko dira, legeak dioena betetzen dela ziurtatzeko.

4.– Erakundeek honakoak egin beharko dituzte:

a) Erakundearen barnean boluntarioaren estatutu bateratu beharko dute, eta bertan ezarri, gutxienez, erakundearen onartzeko eta ez onartzeko irizpideak zein boluntarioen eskubide eta betebeharrak.

b) Behar dena antolatu, boluntarioak bai erakundearen eta bai parte hartuko duen programa eta egitasmoetan bere laguntza emango duela eta behar duen informazioa jasoko duela bermatzeko.

c) Egin beharreko lanak egiteko egokiak diren bitartekoak eta laguntza eman boluntarioei.

d) Boluntarioei lanak ondo egiteko beharrezkoa denheziketa eman.

e) Boluntarioentzako aseguru poliza sinatu; horren bidez, boluntarioak bere lana egiterakoan bitartekoren bati kalterik eginez gero aseguruak ordainduko lituzke kalteak, betiere araudian ezartzen diren baldintzetan eta araudiak ezartzen duen kapitalaren bidez.

f) Boluntario gisa egiten duen berariazko lanari dagozkion segurtasun eta higiene baldintzak bermatu.

g) Boluntarioari berak egindako lanak egiaztatzen dituen agiri bat egin.

h) Boluntario berri bat erakundearen sartzean egiten den hitzarmenean ezarritakoa bete.

) Erakundearen sartzenean eta erakundearen kide izateari uzten diotenen erregistroa egin.

j) Boluntario gisa lan egitean boluntarioak zahututako dirukopurua itzuli, baldin eta erakundearen eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.

k) Boluntarioari egiaztagiri bat eman bere lanerako gaitu eta identifikatuko duena.

5.– Erakundearen eskubideak dira:

a) Egin beharreko lanaren arabera aukeratzea boluntarioak.

b) Erakundeek egiten duten borondatezko lanaren inguruan beharrezko informazioa eta orientabidea eskatzea Administrazioari eta eskatutako hori jasotzea.

c) Borondatezko lana sustatzeko ekintzetan aurreikusten diren.

III. TITULUA
BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEEN
ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO
HARREMANAK

9. artikulua.– Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.

Boluntariotzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak honako eginkizun hauek beteko ditu gizarte ongizatearen arloan eskumenak dituen sailaren bidez:

a) Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra kudeatu eta antolatu.

b) Boluntariotzaren baliabideei buruzko katalogo bat egin, bertan Autonomia Erkidegoan garatzen diren programen edukia agertuko delarik.

c) Lehendik dauden fondoak koordinatuko dituzten boluntariotzari buruzko agirifondoa eta datubasea sortu.

d) Boluntariotzako egitasmo jakin bati ekin dioten erakundeei behar eta eskatzen dituzten aholkuak eta laguntza eman.

10. artikulua.– Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra.

1.– Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra sortuko du gizarte ongizatearen arloan eskuduntza duen Eusko Jaurlaritzako sailak. Errolda horretan 8. artikuluan aipatzen diren erakundeak sartuko dira, hain zu-zen ere 1.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki lege hau bete behar duten erakundeak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzapeko fundazio eta elkarte-erregistroen arduradunek erroldan jakinarazi beharko dute fundazio eta elkarte horietan jende berria sartzean, baldin eta erakundeak boluntarioak baditu. Horretarako, hasieran izen ematea egiterakoan, erakundeek erregistroei jakinarazi beharko diete boluntarioak dituzten erakundeak direla.

3.– Dena dela, eta aurreko lerrokadan aurreikusitakoa aldarazten ez dela, erakundeek zuzenean ere eman ahal izango dute izena erroldan.

11. artikulua.– Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanak bultzatu dituzten printzipioak.

1.– Elkarlaguntza, partehartzea eta osagarritasuna izango dira administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanen oinarri. Nolanahi ere, boluntariotzako erakundeek antolaketarako eta ekimenak bultzatzeko duten autonomia babestu beharko du Administrazioak.

2.– Berariazko hitzarmenen bidez bideratuko da nagusiki administrazio publikoen eta erakundeen arteko elkarlaguntza.

3.– Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanak beharrezkoak eta komenigarriak izanik ere, horrek ez ditu inola ere aginte publikoak beren erantzukizunetik libre uzten ez giza duintasunarentzako oinarritzko eskubideez benetan baliatzeko bermeari dagokionez, ez aukera berdintasunari eta gizarte berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeari dagokienez.

IV. TITULUA BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA

12. artikulua.– Sustatzeko neurri orokorrak.

Boluntarioen lana erraztu eta sustatzeko asmotan, euskal administrazio publikoek honako ekimen hauek bultzatuko dituzte, besteak beste, euren aurrekontu baliabideek ahalbidetzen dieten neurrian:

a) Boluntarioak dituzten erakunde ezberdinen baliabide eta bitartekoak bateratu, batez ere heziketari eta informazioa biltzeari dagokienez.

b) Boluntariotza antolatua oro har sustatzeko bitartekoak jarri, laguntzako boluntariotzaren aurrean boluntariotza eraldatzaileari lehentasuna emanaz, sustatzeko bitartekoak jarri. Modu berezian sustatuko dira lurralde eta udal batera mugatu gabe erakundeen arteko elkarlaguntza bultzatzen duten ekimenak, sektore eta esparru bakarrean jarduteko ez direnak.

c) Dirulaguntza programetarako deialdiak egin eta hitzarmenak sinatu, hartara administrazio publikoen errolda nahiz erregistroetan sartutako erakundeak iraunarazteko eta horien heziketa eta ekimenak bultzatzeko.

d) Boluntariotzari buruzko ikerketak, azterketak eta argitalpenak egin.

e) Erakundeei informazioa, dokumentazioa, aholkuak eta laguntza teknikoa eman.

f) Boluntariotzari buruzko informazio kanpainak antolatu eta boluntariotzaren baloreak zabaldu.

g) Borondatezko lana publikoki eskertzeko ohorezko neurriak ezarri.

h) Komunikabideetan boluntarioaren mezua agertuko dela bermatu, bai eta boluntarioaren lana oro har publikoki ezagutzera emango dela ere.

i) Autonomia Erkidegoko erakundeak Autonomia Erkidegoaz kanpoko lurralde eremua duten beste erakunde batzuekin harremanetan jarri.

j) Lanaldia murrizteko edo egokitzekeo neurriak jarri, borondatezko lana egin ahal izateko.

k) Borondatezko lana errazteko lege, lan eta zerga esparru egokiak bultzatu.

13. artikulua.– Herri onurakotzat jotzea.

Lege honetako 8.2 artikulua barne hartzen dituen boluntariotzako erakundeak herri onurakotzat jo daitezke, beren forma juridikoei dagokien berariazko legedian ezarritakoari jarraiki.

V. TITULUA
BOLUNTARIOTZAREN PARTAIDETZA

14. artikulua.- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

1.- Elkartasun politikan gizarteko erakundeek eta gizarte osoak parte hartzeko, Boluntariotza-ren Euskal Kontseilua sortu da, boluntariotza gaiaren inguruan biltzeko, aholkuak emateko eta kontsultak egiteko organo gisa.

2.- Kontseilu hori gizarte ongizate arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da.

15. artikulua.- Eginkizunak.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honakoak izango dira:

a) Arau orokorrak emateko aurreproiektuak edo proiektuak egiterakoan, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak ezinbestean egin beharko du horiei buruzko txostena, baldin eta arau horiek zuzenean boluntariotzari badagozkio. Txostena, boluntarioek eskatu eta hamabost eguneko epean bidali beharko da.

b) Boluntariotzaren oinarrizko beharrak zeintzuk diren antzeman eta aztertu.

c) Euskal administrazio publikoei aholkua eman eta proposamenak zein egitasmoak aurkeztu borondatezko lana egiten den esparru ezberdinei buruz. Horrekin batera, boluntariotza programak diruz laguntzerakoan lehentasuna izango luketen irizpideak proposatu.

d) Boluntariotza sustatzeko neurriak aztertze-ko eta zuzentzeko proposamenak egin euskal administrazio publikoei.

e) Jakinaren gainean egon euskal administrazio publikoek boluntariotza programen gainean egindako jarraipenazeta ebaluazioaz, bai eta emandako dirulaguntzezere.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren berri eman urtero, txosten baten bidez.

g) Elkartasunarekin zerikusia duten parte hartze organoetan gizarte eragileak egotea bultzatu.

h) Kontseiluaren funtzionamendu-araudia proposatu Gobernuari.

i) Ekintzen urteroko txostena onartu.

16. artikulua.- Osacera.

1.- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren kideak honakoak izango dira:

a) Lehendakaria: kontseilua Eusko Jaurlaritzako sail bati atxikita egongo denez, sail horretako sailburua bera edo horrek eskuordetutako pertsona.

b) Lehendakariordea: boluntariotzako erakundeen artean aukeratutako bat. Lehendakariaren hainbat eginkizun beteko ditu, araudiz ezarrita daudenak, hain zuzen.

c) Bokalak:

- Eusko Jaurlaritzako sei ordezkari, sailburuorde mailakoak, gizarte ongizate, ingurugiro, babes zibil, kanpo ekintza, kultura, hezkuntza, kirol eta osasun arloan eskumenak dituzten sailek izendatuak.

- Foru aldundietako hiru ordezkari, aldundiek berek izendatuak.

- Udaletako hiru ordezkari, ordezkari-tza handiena duen euskal udal elkarteak izendatuak.

- Erakundeetako hamahiru ordezkari, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Oroko-rreran izena emandako erakundeen artean aukeratuak, hain zuzen ere erakunderik txikienetako ordezkariak ere bokal izan ahal izateko moduko partaidetza-sistema batez aukeratuak. Ordezkari horiek guztiak edo horietako batzuk izendatu gabe egonez gero, kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu.

d) Idazkaria: lehendakariak izendatuko du kontseiluko kideen artean.

2.- Kontseilukideak hiru urterako aukeratuko dira, duten ordezkari-tzaren arabera, nahiz eta aldi hori beste horrenbeste luzatu ahal izango den. Izendatu zituen organoak kendu ere egin ditzake kontseilutik, dagokien aldia bete baino lehen.

3.- Boluntariotzaren Euskal Kontseilura jotzeko eskubidea izango dute, halaber, tratatzen den gaian adituak direnek, baina informatzeko edo aholkua jasotzeko soil-soilik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bat.- Eredu normalizatua.

Lege honetako 8.3 artikuluan aipatzen den hitzarmen edo konpromezu eredu normalizatua bidaliko die Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak hala eskatzen duten erakunde-
ei.

Bi.- Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra.

Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak funtzionamendu araudi bat onartuko du Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrerako, gizarte ongizatearen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta.

Hiru.- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

Boluntariotzaren Euskal Erakundea eratu eta sei hilabeteko epean funtzionamendu araudi bat egingo du; funtzionamendu araudi hori Eusko Jaurlaritzak onartukodu, gizarte ongizatearen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Bakarra.- Erakundeak egokitzea.

Lege hau indarrean jartzen den unean boluntarioak dituzten erakundeek lege honetan ezarritakora egokitu beharko dute lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebeteko epean.

AZKEN XEDAPENAK

Bat.- Araudi bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzari eskumena ematen zaio lege hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak emateko.

Bi.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean. Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadi-ko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

**169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa,
Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren
funtzionamendu-araudia onartu
eta boluntariotzari buruzko
zenbait alderdi arautzen dituena**

169/2000 DEKRETUA, IRAILAREN 1EKOA,
BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN
ERROLDA OROKORRAREN FUNTZIO-
NAMENDU-ARAUDIA ONARTU ETA
BOLUNTARIOTZARI BURUZKO ZEN-
BAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUENA.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 10. artikulua bitartez, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra sortu zen, gizarte-ongizateko eskumenak dituen sailari atxikita. Halaber, 2. Xedapen Gehigarriak zera esaten du, Legea indarrean jarri eta sei hilabete epean, gizarte-ongizateko eskumenak dituen sailaren sailbuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren funtzionamendu-araudia onartuko duela.

Dekretu honen bitartez, erroldaren edukia zehaztu, erakundeak inskribatzeko prozedura ezarri eta erakundearen eta pertsona boluntarioaren arteko akordioa edo hitzarmena egiteko agiri normalizatuaren erdua sortzen da.

Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanek lankidetzaz, osagarritasuna eta partaidetza dute oinarri.

Gaur egun ezinezkoa da gizartearen behar berriei administrazio publikoetatik bakarrik erantzutea. Beraz, erantzukizunak eta jarduketak administrazio publikoen eta borondatezko gizarte-elkartasuneko erakundeen artean banatuta bakarrik lortuko da gizarte justu eta berdintasunezkoa.

Beraz dekretu honen bitartez, lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat boluntariotzako erakunde dauden jakin nahi da, ondoren "Euskal Boluntariotzaren Kontseilua" eratzeke eta Eusko Jaurlaritzak alor horretan dituen eskumenak gauzatzeko.

Hauek dira eskumen horiek:

– Boluntariotzaren baliabideen katalogo publikoa egitea.

– Boluntariotzari buruzko agiri-fondo eta datu-base bat osatzea, dauden foroak koordinatzeko.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak dioenari jarraituz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaz sailbuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko irailaren lehen egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua. – Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren araudia onartzea da Dekretu honen xedea. Errolda hori Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen bitartez sortu zen, gizarte-ongizate alorreko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita. Dekretu honen beste helburuetako bat boluntariotzari buruzko beste zenbait alderdi arautzea da.

2. artikulua. – Aplikazio eremua.

Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erakunde hauek inskribatu ahal izango dira: batetik, boluntariotzako erakunde deitzen direnak, hau da, gehien bat boluntarioz osatuta egonik, beren egitasmo eta proiektu gehienak boluntario horien bitartez betetzen dituztenak, 17/1998 Legearen arabera, eta, bestetik, izaera hori eduki ez arren, beren jardueren barruan boluntarioek parte hartzen duten programak dituztenak. Erakunde horiek EAEaren eskumeneko elkarte, fundazio edo kirol-elkarteen erregistroetan egon behar dute inskribatuta, edo, beren eraketa, egoitza edo helbide sozialagatik hala badagokie, antzeko erregistroetan.

Kasu guztietan, erakundeen izaera juridikoa dena dela, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Legez eratuta egotea.

b) Berezko nortasun juridikoa izatea.

c) Irabazi-asmorik ez izatea.

d) Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 3. artikuluan interes orokorrez jotzen diren programak edo proiektuak gauzatzeko.

3. artikulua. – Inskripzioaren ondorio juridikoak.

Inskripzioa borondatezkoa izango da boluntariotzako erakundeentzat. Inskribatuta egoteak parte hartzeko eta biltzeko gune den Boluntariotzako Euskal Kontseiluan parte hartzeko aukera emango die, baita administrazio publikoek beren eskumenen barruan dirulaguntzak emateko eta jarduerak sustatzeko egiten dituzten programetan esku hartzeko ere.

4. artikulua.- Inskripzioaren edukia.

1.- Inskripzioan datu hauek eman behar dira:

- a) Erakundearen izena.
- b) IFZ.
- c) Erakundearen izaera juridikoari dagokion erregistroan inskribatu izanaren agiria.
- d) Helbide soziala, egoitza edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak.
- e) Erakundearen xedea eta burutzen dituen interes orokorreko jarduerak.
- f) Zein esparrutan lan egiten duen.
- g) Laguntza jasoko duen populazioaren ezau-garriak.
- h) Jardueraren lurralde-eremua.
- i) Legezko ordezkaria eta boluntariotzaren arduraduna.
- j) Erakundearen giza-baliabideak.
- k) Elkarteen kasuan, onuragarritasun publikoko aitopena, baldin badute.
- l) Boluntarioek burututako programa eta jarduerak.
- ll) Aseguru poliza.
- m) Boluntariotzako barne estatutua.

2.- Inskripzio-datuak egunera edukitzeko eta aldaketan berri izateko, Erroldan inskribatutako erakundeek aurreko puntuan aipatzen diren datuetan gertatzen diren aldaketak eta, oro har, erroldarentzat interesgarri izan daitezkeen antolamendu eta funtzionamendu kontuak jakinaraziko ditu, besteak beste: estatutuen aldaketak, federazio eta konfederazioen sorrera edo bereizketak, Zuzendaritza Batzordearen edo Gobernu Organoaren eta administrazioaren osaketa, entitatearen desagitea eta interesgarri izan daitekeen beste edozein.

5. artikulua.- Aseguru poliza.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8. artikulua e) letrako 4. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, boluntarioak dituzten erakundeek, beren izaera juridikoa

dena dela, aseguru poliza bat egin beharko diete honako hauek estaliko dituen: asistentzia sanitarioa, heriotza eta balioezintasuna eta boluntariotzaren jardueran izandako istripuak eta besteri eragindako kalte-galerak.

Horretarako egin beharreko erantzukizun zibileko polizak 50 milioiko kapitala izango du gutxienez (300.506,05 €).

6. artikulua.- Inskripziorako behar diren agiriak.

Boluntarioak dituzten erakundeek agiri hauek aurkeztu behar dituzte Boluntariotzako Erakundeen

Errolda Orokorrean sartzeko:

- a) Izaera juridikoaren arabera dagokion erregistroaren agiria, bertan istribatuta dagoela frogatzen duena.
- b) Erakundeko Boluntarioen Barne Estatu-tuaren kopia. Bertan, gutxienez, boluntarioak hartzeko eta baztertzeko irizpideak eta horien betebeharrak eta eskubideak jasoko dira.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, Dekretu honetako II. Eranskinean erakundearen eta pertsona boluntarioaren arteko konpromisoa edo akordioa gauzatzeko eredu normalizatua eskaintzen da.

- c) Aseguru-polizaren kopia eta, horrekin batera, urte horretako aseguru-primak ordaindu izanaren jatorrizko ordainagiriaren kopia eta aseguratu-takoaren zerrenda.
- d) Erakundearen eratze agiriaren kopia. Eratze agiri horrek behar bezala legezkatuta egon behar du.
- e) Dekretu honetako II. Eranskinean eskaintzen den inskripzio-agiri normalizatua behar bezala beteta.

7. artikulua.- Erroldaren eta Fundazio eta Elkarteen Erregistroen arteko lankidetzak.

1.- Erroldaren eta Fundazio eta Elkarteen Erregistroen arteko lankidetzak beharrezkoa denez, Erregistroek Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean berri emango diete beren eraketa hasierako inskripzioaren bitartez formalizatu nahi duten entitate berriei eta, bereziki, boluntarioak dituztela adierazi dutenei, erroldan ere inskribatu daitezten.

2.- Fundazio eta Elkarteen Erregistroetan jadanik inskribatuta dauden erakunde boluntariodunen kasuan, beren estatutuetan elkartearen xedeari buruz xedatutakoa hartuko da aintzat. Ondorio horietarako –eta horietarako bakarrik–erregistroetako arduradunek elkarteen xedeari begiratuta ustez boluntariotzako erakunde diren entitateen zerrenda bidaliko diote Erroldako arduradunari. Behin agiriak aztertuta, Erroldako arduradunak erakundeok Boluntariotzako Errolda Orokorrean sartzeko izapideak eguneratu eta osatuko ditu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ordezko araubidea.

Dekretu honetan prozedurari buruz jasotzen ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta hori aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoa beteko da.

Bigarrena.– Garatzeko arauak.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko eman behar diren xedapenak emateko. Halaber, eskumena ematen zaio I. eta II. eranskinetan, egoki iritziz gero, aldaketak egiteko eta Dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen den aseguru polizako zenbatekoa eta ezaugarriak ere aldatzeko.

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastián,
2000ko irailaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

169/2000 Dekretuaren Eranskinak

I. Eranskina. Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean izena emateko eskaera eredia.

II. Eranskina. Erakundearen eta pertsona boluntarioaren arteko akordio edo konpromisoaren agiriaren eredu normalizatua.

I. ERANŠKINA

Instituzioaren 1994/1995 Dekretua, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren Funzionamendu-erudie onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi erabazten dituzten (1994ko Instrukzio 2/95ko 114/4)

BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA

Erroldako zka.: _____

Alta _____

Baja _____

Aldaketa _____

(Oharra: informazio hau Erroldak bete behar du)

Erakundearen izena: _____

I.F.Z. _____

Elkartearen egoitza:

Helbidea _____

Hiria _____

Posta kidea _____

Lurralde historikoa edo probintzia _____

Telefona eta faxa _____

(1) e-mail _____ **.....Web-ontea** _____

Legazko ordezkaria:

Izen-abizenak _____

Entitateen duen kargua _____

Boluntariotzaren arduraduna:

Izen-abizenak _____

Entitateen duen kargua _____

izena juridiko: _____

Elkarte _____

Elkarteen federazioa _____

Fundazioa _____

Enjio-erakundea _____

Bestatekoa _____

_____ erregistroan inekribetuta _____ zerbalderekin

Entitatearen egotza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badago, bete ezazue erdidego honetan duen ordezkartzeraren datuak:

izena _____

Helbidea _____

Herria _____

Posta kodea _____

Lurreko hitorikoa _____

Telefonoa eta faxa _____

Legazko ordezkaritza:

Izen-abizenak _____

Entitate duen kargua _____

Boluntadotzaren arduraduna _____

Erakundearen jardura-eremua:

Gizarte zerbitzuak

Komunitatearentzako zerbitzuak, oro har

Minusbeltasun fisiko, psikiko edo sentimentazkoak

Adineko pertsonak

Haur, gaztebo eta gazteen behea

Emakumea

Gubergo etnikoak

Etorriak eta errefuxatuak

Droga-menpekotasunak

Pertsona marginalak eta gizarteik baztertuak edo marginetuak izateko arriskuan

Presoak, preso ohiek

Gaboteanuen batek jokatzen edo hartzen dituztenak

Beste batzuk _____

Komunitatearen gaitasuna

Komunitatea oro har

Auzo-mugimendua

Kolektibo bereziak _____

Kultura eta kirola

Oro har

Azterketa

Kultura ondarea

Hizkuntza ondarea

Alela eta tarte libreak

Kirola eustatzea eta egitea

Beste batzuk _____

Gaitasuneko jarraitzea**Ingurumena**

Komunitatearen erantzukizua

Ingurumenaren babesa

Beste batzuk _____

Beste batzuk

Hizkuntza

Ikerketa

Babes zibila

Asoziazioen edo boluntariotzeren eustapena eta babesa

Beste batzuk _____

Hartzailen erantzukizua

Berlinda

Gizonak

Emakumeak

Hartzelleak adinaren arabera:

Berdin dio
 Haurrek
 Gazteboek
 Gazteak
 Helduek
 Adinekoek

Jarduaren lurralde-esparrua:

Toki mallekoa
 Lurralde historikoa
 Euzkai Autonomia Erkidegoa
 Estalua
 Nazioartekoa _____

Erakundearen helburuak: _____

Erakundeak buntzen dituen jardueren azalpen laburra: _____

Erakundearen giza-bellebkiak:

Boluntarioen kopurua _____

Zuzendaritza lanetan _____

Beatsako lanetan _____

Boluntario iraunkorrak _____

Nolzbehinkako boluntarioak _____

Erakundeak bezaldea diren boluntarioak _____

Bezkideak _____

Ordaindutako langileak _____

Lanaldi oekoak _____

Lanaldi partzialekoak _____

Ordezko gizarte-zerbitzuak _____

Aseguru-polizak, ezagueriak eta kontingentziak.**Boluntarioen bame-estatutua.***(1) posta elektronikoa edo web-orria erabiliz gero, haren berri eman*

BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA
 Justizia, lan eta Gizarte Segurantzza Saila
 Gizarte ongizate Zuzendaritza
 C/Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz - Tfno: 945-019393/945-019405
 Fax 945-049157 - e-mail: respbs@ej-gv.es / admibs@je-gv.es

II. ERANSKINA

Irakuren 1eko 1993ko Deialde-tas, Boluntariotasiko Erakundeen Erroide Orokorren Funzionamendu-erudie onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi erabazten dituen (2006ko Irakuren 28ko 2844)

ERAKUNDEAREN ETA PERTSONA BOLUNTARIOAREN ARTEKO AKORDIO EDO KONPROMISOAREN AGIRIAREN EREDU NORMALIZATUA

_____ tokia eta data _____

HONAKO HAU EK BILDU DIRA

izen-abizenak: _____

Adinez nagusia. NAN zka.: _____

Ordezkatzen duen irabazi asmorik gabeko erakundearen izena: _____

(elkartea, fundazioa, bestelakoa). Erakundearen duen kargua: _____

(lehendakaria, administraziozalea, etab.) Erakundearen helbidea: Herria: _____

Kalea _____

Dagokion erregistroa (elkartasuna, fundazioa, beste bat): Erregistroko zenbakia: _____

izen-abizenak: _____

D.N.I.a. _____

Helbidea: herria: _____

Kalea _____

(Pertsona boluntarioa edin bildkoa bada edo tutoretzapean badago, gurasoak edo tutorea ere agertuko dira, eta balmena ematen dutela adierazteko, eintu egingo dute erakundearen ordezkarieren eta boluntarioaren ondoan.)

Eta agiri honen bitartez, erakundeko baimen estatutuaren boluntarioak onartzeko ezarritako irizpideei eta Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8.3 artikulueri jerrakuz, akordio/konpromiso hau eintu dugu:

BOLUNTARIOTZAKO AKORDIOAKONPROMISOA

h) Jarduerak egurtasun eta higlenera baldintza egokidetan betetzea, jardueraren beraren izara eta ezaugarrien arabera.

l) Gizarteari eman dion laguntza aitortzea eta errepetetzea.

l) Boluntariora eakatasunez uztea, horren berri eman ondoren.

k) Ordenamendu juridikoek boluntarioari aitortzen dizkion gainontzekoak.

IV. Boluntarioaren betebeharrak

a) Bere aukeren eta berrordetzaaren barruan, erakundeari laguntzea eta horretan parte hartzea eta lan egitea.

b) Erakundearekin hartutako konpromisoak betetzea, horren helburuak eta gobernu-eremuak errepetetzea.

c) Ezeleku zehazidun zeroginak erduz burutzea eta erakundeko arduradunek ematen dizkiden jarraibideak betetzea.

d) Erakundeek antolatzen dituen prestatuak-jardueretan eta ematen dituen zerbitzuen kalitateari eusteko behar direnatan parte hartzea.

e) Boluntario jardueren jaso edo ezagutu duen informazioa lelopean gordetzea.

f) Bere laguntza jasotzen duten pertsonen edo pertsona-taldearen sekulidateak errepetetzea.

g) Boluntario-kreditazioa eta erakundearen ezaugarria egoki erabiltzea.

h) Bere esku uzten diren balabide materialek zaintzea.

l) Boluntario-lana indarrean dagoen legerien ezarritako printzipioen arabera betetzea.

l) Antolatzen diren juridikoen boluntarioei buruz ezartzen direnak.

k) Ezartzen diren egurtasun eta higlenera neurriak errepetetzea.

V. Akordioaren konpromisoa hartutako erantzuleak

a) Hitzartutako opea amaitzea.

b) Alderdi bakoitzeko bere betebeharrak nabarmen ez betetzea.

c) Hitzartutako jarduerak bete ezin izatea.

d) Erakundea desagertzea.

_____ Jauna/andrea

_____ Jauna/andrea

(Erakundearen ordezkaria)

(Boluntarioa)

(Eredu honetan edukit gehiago ere ean daiteke, alderdi biek egoki irizten ditzen eran, indarrean dagoen antolatzen diren juridikoen aliazat hartuta).



BizkaiaGara

Eginez izan · Tiempo de acción



www.bizkaiagara.eus

info@bizkaiagara.eus

